

Estatutoak
Arau
orokorrak
Arau
partikularrak

 OLARAIN

Aurkibidea



Ondarreta pasealekua 24
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 00 33 00
Faxa: 943 00 33 09
tutoria@olarain.com
www.olarain.com

▣ Estatutoak

I. Kapituluua. Izaera eta xedeak	05
II. Kapituluua. Gobernu-Organook.....	05
III. Kapituluua. Egoiliarak	06
IV. Kapituluua. Ikasketerako laguntza eta jarduerak	06
V. Kapituluua. Arau-Haustekak eta zigorrak	06

▣ Arau orokorrak

01. Onarpena eta zerbitzuak	09
02. Elkarbizitzako arauak	10
03. Arau funtzionalak	13
04. Datuak Babesteko Legea	17
05. Arau ekonomiko administratiboak	20

▣ Arau partikularrak

Arau orokorrak	23
01. Gimnasioa	24
02. Sauna	24
03. Ordenagailu gunea	25
04. "Toti Martínez de Lezea" Liburutegia	25
05. Ikasketa-gelak	25
06. Musika-gelak	26
07. Teknologia-gela	26
08. "Txokus"	26
09. Fotokopiagailua eta dokumentu birringailua	27
10. Spatium	27
11. Janlekua	28
12. Egongela	29
13. Moto eta bizikletarako aparkaledua. Surf-oholak gordetzea	29
14. Padela	30
15. Ikasurte akademikoan kontsigna	31
16. Arropa garbitu eta lisatzeko arauak	31
17. Arropa eta logelak garbitzeko egunak	33
18. Hainbat	33
19. Oporrak eta ikasurte-amaiera	33
20. Arau honen aldaketa	34



Estatu toak

 OLARAIN



I. KAPITULUA

IZAERA ETA XEDEAK

Artikulua

01. Olarain Ikastetxe Nagusia unibertsitate-egoitza bat da eta pribatua, mistoa, ez-konfesionala eta edozein alderdi politikoz kanpokoa da. Ekintza Fundazioak; Ikastaries, SAK; eta PBP Olarain, SLk parte hartzen dute.

Artikulua

02. Ikastetxe Nagusiaren xede nagusia unibertsitateko eta gradu-ondoko ikasleei ostatua eta mantenua ematea da. Gainera, ikasle horien heziketa integralerako lagungarriak izango diren kultur jarduerak eta kirol-jarduerak sustatuko dira.

Artikulua

03. Ikastetxe Nagusiak Unibertsitateko hezkuntza-elkarteari, orokorrean, zerbitzu egin nahi dio. Hortaz, irakasleek eta irakasle ez diren beste profesionalak –adineko beren senitartekoek barne– Ikastetxean aldi baterako hartu ahal izango dute ostatu, bai eta kulturaren eta kirolaren hainbat esparrurekin lotzen diren helduek ere.

II. KAPITULUA

GOBERNU ORGANOAK

Artikulua


04. Kontseilu Errektoreak, Zuzendaritza Kontseiluak eta Ikastetxearen Zuzendaritzak gidatzen dute Olarain Ikastetxe Nagusia.

Artikulua

05. Errektore Kontseilua entitate sustatzaile bakoitzeko eta guztietako ordezkariak osatzen dute. Gutxienez urtean bitan bilduko da eta bere kideetako batek jardungo du kontseiluburu gisa. Idazkaria Ikastetxe Nagusiko zuzendaria izango da. Zuzendaritza Kontseiluak Ikastetxe Nagusiaren funtzionamendurako barne-araudia landu beharko du eta arau-hauste larrien edo oso larrien ondoriozko zigorrak aplikatu beharko ditu.

Artikulua

06. Zuzendaritzak barne-araudiko arauak bete eta betearazi beharko ditu, Ikastetxe Nagusiaren funtzionamendu zuzena zaindu beharko du, Ikastetxeko bizitza komunitarioa antolatu beharko du, zerbitzu guztietako langileak koordinatu beharko ditu. Ikastetxearen arauetan finkatzen diren



funtzioak eta Administrazio Kontseiluak esleitzen dizkion funtzio guztiak bete beharko ditu, eskuordetu ezin direnak salbu.

III. KAPITULUA

EGOILIARRAK

Artikulua

07. Ikastetxe Nagusian ikasturte osorako –edota aldi baterako– matrikulatuta dagoen unibertsitateko edo gradu-ondoko ikasketetako ikaslea da Ikastetxe Nagusiko ikasle-egoiliarra.

Artikulua

08. Egoiliarrek zehatz-mehatz bete beharko dituzte arau orokorrak eta arau partikularrak, bai eta Ikastetxe Nagusiko ohiturak eta tradizioak ere. Langileen eta ikaskideen askatasuna eta eskubideak errespetatu beharko dituzte, elkarbizitza atseginerako ohiturak garatu beharko dituzte, eta Ikastetxearen kanpo-irudia eta barne-irudia zaindu beharko dute.

IV. KAPITULUA

IKASKETETARAKO LAGUNTZA ETA JARDUERAK

Artikulua

09. Ikastetxe Nagusiak ikasketetan laguntza eskainiko die egoiliar guztiei, Ikastetxeak ikasleen esku jarriko ditu baliabide material eta pertsonal guztiak.

Artikulua

10. Ikastetxe Nagusiak hezkuntza, kultura eta kirolerako jarduerak antolatuko ditu ikasturtean zehar bere ikasleen lankidetzeta eta partaidetzarekin.

V. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Artikulua

11. Arau-haustetzat hartuko dira Ikastetxe Nagusian bizi diren edo lan egiten duten pertsonen edo egoiliarren askatasunaren eta duintasunaren aurkako ekintzak edo utzikeriak; eraikina, ekipamendua edo ingurunea hondatzen duten ekintzak edo utzikeriak; Ikastetxearen irudi onaran aurkako ekintzak edo utzikeriak; eta Ikastetxearen



arauen eta ohituren aurkako ekintzak edo utzikeriak.

Artikulua

12. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Ikastetxeko Zuzendaritzak kasuak kasu baloratuko du arau-hausteen kalifikazioa.

Artikulua

13. Zigorrak honelakoak izan daitezke:

Arau-hauste arinen kasuan:
ohartarazpen pribatua
ohartarazpen pribatua eta/edo
ikaslearen gurasoei/tutoreei.

Arau-hauste larrien kasuan:
Ikastetxetik aldi baterako
kanporatzea.

Arau-hauste oso larrein kasuan:
Ikastetxetik behin betiko
kanporatzea.

Artikulua

14. Arau hauste larriei eta oso larriei dagozkien neurriak hartzea Zuzendaritza Batzordearen eskumena da, eta hartutako neurriak egoiliarren gurasoei edo tutoreei jakinaraziko zaizkie beti.



Arau oroko rrak

 OLARAIN



ONARPEN ETA ZERBITZUAK

- 01.** Ikastetxe Nagusiko Zuzendaritzak urtero finkatuko ditu egoiliarrak onartzeko baldintzak, berronarpeneren kasuan ere bai. Egoiliarrak ez du inola ere berronartzeko eskubiderik. Ikastetxe Nagusian sartzeko onarpena edo berronarpena ikasturte bakoitzari hasiera eman aurretik egin beharko da, behar bezala adieraziko diren epeen barruan eta baldintzekin.
- 02.** Onarpen-baldintzen artean, eskatzailearen errendimendu akademikoa hartuko da beti aintzat. Berronarpenerako, berriz, erabakigarria izango da ikasleak aurreko ikasturtean izan duen jarrera, portaera eta Ikastetxe Nagusiaren jardueretan izan duen parte-hartzea.
- 03.** Behin onartu ondoren, egoliarrak ikasturteari guztira dagokion zenbatekoa Ikastetxearen Administrazioak finkatutako epeetan ordaintzeko konpromisoa hartuko du, Ikastetxe Nagusitik kanpora bidaltzen badute ezik. Kasu horretan, zigorra jaso duen ikasleak Ikastetxean ostaturik egon den hilabete guztiak eta bakoitza ordaindu beharko ditu, azken hilabetearen zenbateko osoa barne, kanporatua izan den data edozein dela ere.
- 04.** Ikasle egoiliar batek gutxienez ikasturte oso bat eman beharko du Ikastetxean –Ikastetxe Nagusiko Zuzendaritzak behar bezala baimentzen dituen ezohiko kasuetan izan ezik—. Hau da, ikasturteari hasiera emateko finkatutako egunaren bezperatik, kutsoko azken azterketaren hurrengo eguna arte unibertitate bakoitzaren arabera.
- 05.** Ondokoak dira zerbitzuak –beren erabilera arautzen duten arauen ezaugarriekin–:
- a)** Tutoretza, eta jarraipena, akademikoa nahiz integrazioari dagokiona.
 - b)** Kultura eta kirol ekintzak.
 - d)** Ikastetxean dauden prestakuntzarako instalazio eta baliabideen doako erabilera.
 - e)** Ostata eta mantenua –gosaria, bazkaria eta afaria– asteko egun guztietan.
 - f)** Logelen eta gainerako aretoen garbiketa erregularra.
 - g)** Oheko arropa eta esku

oihalak astean behin garbitzea.

h) Bertako eta “Ekintza Ikastolako” kirol instalazioen doako erabilera, padelekoak izan ezik.

i) Ikasturte akademikoan kontsigna zerbitzua.

j) Eguneko 24 orduko harrera zerbitzua.

k) Arropa pertsonala garbitzea (hautagarri).

l) Olarainen eta Basque Culinary Center-en arteko garraio-zerbitzua, baldin eta nahikoa eskaera badago.

Telefono, fax, fotokopiagailu/ inprimagailu, kafetegia, hainbat jokoen erabilera, garbiketa pertsonaleko zerbitzu edo joan-etorrien ondoriozko gastuak, gaixotasun edo istripu batengatik osasun-zentro batera eramatearen ondoriozko gastuak, eta aurreko zerrendan espresuki barne hartzen ez diren gainerako gastuak egoiliarren kargura izango dira.

06. Ondoko arrazoiak direla-eta gal daiteke egoiliar-izaera:

a) Ikastetxearen barne-arauak behin eta berriro ez betetzeagatik, arau-hauste bakoitza oso larritzat jotzen ez bada ere.

b) Oso arau-hauste larri baten ondorioz.

d) Berankortasunagatik.

e) Ikastetxean bizi diren edo lan egiten duten gainerako pertsonen osasunerako arriskutsua den gaixotasun baten ondorioz. Ikastetxean ostatu hartuta zuela hartutako gaixotasuna edo aurretik antzeman ez zen gaixotasuna izan daiteke.

ELKARBIZITZAKO ARAUAK

01. Zuzendaritzak, bere taldeak, egoiliarrek, bertako langileek eta azpikontratutako langileek errespetatu eta errespetarazi beharko dituzte ezarritako elkARBIZITZAKO arauak eta ordutegiak, sektoreetako bakoitzean orokorrean edo banakoan eragina duten neurrian. Arreta berezia jarriko zaio Ikastetxe Nagusia osatzen duten kolektiboko kide guztiekiko erabateko errespetuari eta begiruneari.

02. Zuzendaritzak edota bere lankideek edozein egoiliarren identifikazioa eska dezakete, bidezkoa irizten duten guztietan.

03. Zuzendaritzak, ikasleekin harremanetan jartzeko bitarteko eraginkor eta ohiko

gisa, posta elektronikoa, sare sozialak eta harrera lekuko kutxatilik erabiliko ditu, baita eraikineko hainbat tokitan dauden iragarki taulak ere.

Zuzendaritzak, ezohiko abisuetarako, kasuak kasu bidezko irizten dion sistema ezarri ahal izango du.

04. Izaera publikoko horma-irudi, iragarki eta zerrenda guztiak guztiz errespetatu beharko dira. Halakorik jartzeko Ikastetxe Nagusiko Zuzendaritzaren baimen zehatza izan beharko da. Zuzendaritzak kartelei edo paskinei zigilua jarriko die.

05. Ikastetxe osoan saihestu egingo da ozenki hitz egitea, oihu egitea edota gogaikarria izan daitekeen beste edozein zarata egitea. Ildo honetan, logeletan edo gun e amankomunetan dauden audio-ekipoak –musika, irratia, ordenagailua...– entzungailu edo aurikularrekin erabiliko dira, kanpotik inola ere ez entzuteko moduan.

06. Egoiliar guztiek Ikastetxe Nagusian gehieneko garbitasuna eta txukuntasuna gordetzeko interesa azaldu beharko dute. Horretarako, eta norberaren asmo onez gain, debekatuta

dago Ikastetxean kanpoan prestatutako janariak – pizzak, hanburgesak, oilaskoak, sandwichak, ogitartekoak...- edo horiek lantzeko beharrezko osagaiak ere sarteza eta kontsumitzea.

Arau hau ez betetzea arau-hauste arinatzat hartuko da.

Debekatuta dago eraikinean legez kanpoko drogak eta edari alkoholunak edukitzea eta kontsumitzea. Arau hau ez betetzea hutsegite larritzat joko da.

Horrelakoetan, Zuzendaritzak egoiliarren batek Ikastetxean substantzia horiek eduki edo kontsumitzen dituenari buruzko uste moral sendoa balu, jokaera horren okertasuna pertsonalki adieraziko litzaioke, eta berriro horretan eroriko balitz, gurasoei edo tutoreari jakinaraziko litzaieke idatziz.

Abenduaren 26ko 28/2005 Legea aldatu zuen abenduaren 30eko 42/2010 Legearen arabera, debekatuta dago ikastetxeetan erretzea. Arau hau ez betetzeak ikaslea hiru egunez ikastetxetik kanporatzea ekarriko du. Zigor hori areagotu egin daiteke, iruzur egiteko asmoa badago, zona komunak erabiltzen badira, detektagailuak erabilgaitz

uzten badira edo antzeko beste ekintza batzuk burutzen badira. Eta ez betetze hori errepikatuz gero, behin betiko kanporatzea ekarriko du.

07. Eraikina, instalazioak eta altzariak egoki erabiliko dira, edozein narriadura saihestuz. Ez da txintxeta, grapa edo iltzerik sartuko hormetan, ezta oro har altzarietan eta bereziki norberaren gelakoetan ere. Horien ordeztu, arrastorik uzten ez duten lekedak edo itsasgarriak erabili behar dira. Areto batean gertatzen den edozein narriadura konpontzearen kostua egoiliarrek jarritako fidantzaren zenbatekotik ordainduko da –erabilera normalaren ondoriozko narriadura denean izan ezik–. Izan ere, Ikastetxe Nagusian den bitartean bere eskura jarritako baliabide guztiak behar bezala itzultzen direla bermatzeko, egoiliarrek zenbateko jakin bat jarri beharko du fidantza gisa. Donostiako udalerrian indarrean dagoen legeriari jarraituta, debekatuta dago arropa kanpoaldean esekitzea edo geletako kristaletan posterrak eta pegatinak itsastea, eta leihoetako eta terrazetako mentsuletan elementuren bat uztea.

08. Guztiz debekatuta dago hasi berriei iseka egitea, oso arau-hauste larritzat hartuko da beti.

09. Egoiliar orok gainontzeko ikaskideekiko gizalegezko eta errespetuzko jarrera izan eta sustatu behar du, molestagarri izan litekeen edozein jarrera eta ekintza ekidituz. Gustu txarreko txantxak, tonuz kanpoko eztabaidak eta edonolako istiluak erabat debekatuak daude, eta kasuaren arabera, arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartuko dira, Ikastetxeko pertsonen arteko erlazioak mantendu behar dituen oinarritzko printzipioetako baten aurka egiten baita. Era berean, bertan bizi direnek bereziki zaindu beharko dituzte jantziak, eta lengoaiaren tonua eta formak. Halaber, egunero jende asko elkarrekin dagoen leku batean eskatzen den begirunea gorde beharko dute.

10. Ikasle guztiek Zuzendaritzako abisu eta jakinarazpenen jakitun izateko ardura dute. Gainera, derrigorrezkotzat adierazten diren bileretara joan beharko dute. Bilera horietara joan ez izana justifikatu beharko da.

11. Bilera edo ospakizun

partikularren bat egin nahi izanez gero, Ikastetxe Nagusiko Zuzendaritzari egin nahi den bilera edo ospakizun horren berri eman beharko zaio eta honek onetsi egin beharko du. Horretarako, lanerako eta ikasketetarako giroa beti bermatuko duen espazioa eskainiko du. Ezin izango da inola ere geletan ospakizun edo bilerarik egin.

ARAU FUNTZIONALAK

01. **Sarbideak**

Egoiliar bakoitzak behar bezala identifikatutako, besterenezinetako eta pertsonalizatutako txartela izango du. Txartel honekin bere gelara sartzeaz gain, Ikastetxe Nagusiko aretoetako batzuetara sartu ahal izango da.

Arau hori betetzen ez bada, arau-hauste larria edo oso larria izango da.

02. **Gelak**

Logelen esleipena ikasturte osorako izango da indarrean.

Egoiliarrek ezin izango dute ikasturtean zehar logela aldatu behar bezala justifikatutako arrazoiak ez badaude bederen.

Logelak esleitzeko ondoko irizpideak hartuko dira aintzat: etengabeko egoiliar gisa duen antzintasuna eta interesatuaren lehentasun pertsonalak.

Gela ororen erabilera eta gozamina guztiz pertsonala eta besterenezina da. Hortaz, gela bere egoiliar titularrak soilik erabil dezake, eta inork ezin du tarte batean egon, eta are gutxiago lo egin, esleituta ez duen gela batean; ezta beste egoiliar bati bere gelan egoten edo gaua ematen utzi ere.

Arau hori urratzea arau hauste larritzat jo daiteke.

Ikasle batek ikastetxeko zuzendaritzak baimendu gabeko norbait bere gelan eta/edo ikastetxeko edozein sailetan sartzen badu, ikastetxeak arau hauste hori egin duen ikaslea kaleratuko du berehala. Ikastetxeko Zuzendaritza Batzordeak ez du zehapen hori aldatzeko eskumenik.

Logelak atsedenerako eta bakarrean ikasteko lekua dira. Beraz, logeletan, korridoreetan eta komunikazioguneetan erabateko isiltasunez jardun beharko da.

Segurtasun eta txukuntasunagatik, debekatuta dago orokorrean aparatu elektrikoak erabiltzea – su txikiak, mikrouhinak,

hozkailuak, haizagailuak...-.
Musika aparatuak, irrtiak eta ordenagailuak entzungailuekin erabili behar dira nahitaez.

Halaber, debekatuta daude konpainiako animaliak, edozein motatako armak eta Zuzendaritzaren iritziz egokiak ez diren landareak.

Logelako entxufe guztiek korrante elektrikoa dute, nahiz eta txartela argi-txarteldegian sartuta ez egon.

Ikastetxeko segurtasuneko eta energia kontroleko edozein sistema manipulatzea eta baimendu gabeko aparatu elektronikoak edukitzea arau hauste larritzat hartuko dira.

Garbiketa-egunetan –aste osoko egonaldietan, astean bitan– ikasle guztiek 10:00etan guztiz libre utzi beharko dituzte logelak, eta ezin izango dute logelan egon garbiketa egiten ari den bitartean. Astearen gainerakoan, logelaren eta bainugelaren kontserbazioa egoiliar bakoitzaren ardura izango da. Egoiliarrek logela eta bainugela txukun mantenduko ditu eta ohea egunero egingo du.

Arau orokor gisa: gelaren bat atontzera etorritakoan, egoiliarra bertan baldin badago eta gela berehalakoan uzten ez badu eta/edo garbiketaren arduradunari bere lana eragozten dion

desordena baldin badago, egun horretan ez da garbiketarik egingo.

Hori berriz gertatuz gero, adierazitako zerbitzua kendu ere egin liteke, eta ikasleak mantendu beharko du bere gela behar bezain txukun.

Logeletan beharrezko eta arrazoizko txukuntasuna mantendu beharko da, hala garbiketako langileen zeregina erraztuko baita. Bestalde, bainugeletan eta komunetan gehienezko higiena zainduko da eta ez dira garbitoki edo harraska gisa erabiliko.

Ikasturte akademikoan zehar, maletak, bidaietarako poltsak, eskiak, eta orokorrean, edozein tamainatako paketerik ezin da armairutik kanpo eduki. Armairu barruan sartzen ez den guztia, Ikastetxeko kontsignan gordetzeko aukera dago.

Ikasturtea amaitzean, egoiliarrek beren jabetzako gauza guztiak bertatik atera beharko dituzte, eta logelak libre utzi beharko dituzte.

03. **Sarrerak, irteerak eta bisitak**

Egoiliar orok eguneko 24 orduetan Ikastetxe Nagusitik irteteko eta bertara sartzeko askatasun osoa izango du. Dena dela, 00:00etatik 08:00etara bere sarrera erregistratu egin beharko

du. Txartela atari nagusian xede horretarako jarri diren terminaletan sartu beharko du. Ikasleak gaua Ikastetxe Nagusian eman behar ez duenean –gau ikastetxean ez ematea 07:00ak baino lehen ez itzultzea izango da–, txartel pertsonala harreran laga beharko du.

Ikastetxe Nagusiaz kanpo egoteagatik, nork berak zuzenean jakinarazi ezin duenean, ahalik eta azkarren jakinarazi beharko du telefonoz Ikastetxeko Harrera-lekura deituta.

Egoiliarren bisitei Ikastetxe Nagusiko atarian edo kafetegian egingo zaie kasu eta agur. Zuzendaritzaren edo honen ordezkariaren baimen zehatzik gabe, bisitek ezin izango dute logeletara joan, ez eta sarrera mugatua duten esparru komunetara ere.

Zuzendaritzak alde zuzenetik baimendu dituen kasu jakin batzuetan izan ezik, egoiliar ez den ezein pertsona ezin izango da Ikastetxearen barruan egon 22:00etatik hurrengo eguneko 08:00etara.

04. **Sare informatikoak, haridunak nahiz haririk gabek**

Ikaslea Internetera borondatez eta bere ardurapean konektatzen da. Internet erabiltzeak eragindako

erantzukizunak eta ondorioak ikasleari bakarrik dagozkie.

Olarainek bertako ikasleei bakarrik ematen die Interneterako konexioa. Debekatuta dago beste pertsona edo erakunde batzuek erabiltzea. Ikasleek ezin dizkiete hirugarrenei eman zerbitzu hau erabiltzeko behar diren pasahitzak, gakoak eta eragiketen xehetasunak.

Olarainek ez du komunikazioen segurtasuna bermatzen. Ikaslearen ardura da, eta berea bakarrik, sarera konektatzeko erabiltzaile-kodeei, pasahitzei, gakoei, eremu pribatuko webguneetarako konexioei eta abarri ematen dien erabilera.

Espresuki debekatuta dago Olarainek emandako sarbidea etikarik gabe, gehiegikeriaz edo modu desegokian eta arau-hauste administratiboak egiteko edo edozein lege edo arau urratzeko erabiltzea. Ikasleak ezagutu behar du une bakoitzean gai honetan indarrean dagoen legeria, eta zorrotz bete behar du.

Olarainek Interneten nabigatzeko emandako konexioa eta ikasleek horri ematen dioten erabilera erregistratu, monitorizatu eta aztertu egin ditzake Olarainek, eta horrek aurrez deskribatutako ondorioak

eragin ditzake.

Ikastetxe nagusiko sistema informatikoak automatikoki blokeatzen ditu bertako sareetan errendimendu arazoak eragiten dituzten programak eta Interneteko legez kontrako edukiak dituzten web orriak.

Ikastetxeko Zuzendaritzak Olarainen sareetara konektatu aurretik birusen kontrako softwarea instalatuta eta eguneratuta edukitzea gomendatzen du.

Gehiegizko banda zabalera kontsumitzen ari den gailuren bat antzemanaz gero, sareetatik deskonektatuko da.

Ikastetxeko sareei eta/edo hari konektatutako ekipoei egindako eraso oro, baita sareen erabiltzaileen intimitatea urratzeko saiakera oro ere, arau hauste oso larritzat hartuko dira eta ikaslea berehala kaleratzea ekarriko dute.

Egoiliarrak zerbitzu hau modu okerrean erabiltzen ari direla edo baimenik ez duten pertsonak erabiltzen ari direla atzematzen badu, berehala Olaraini jakinarazi beharko dio.

05. **Igandetik ostiralera bitarteko egonaldiak**

Modalitate honetan logela igandetik ostiralera erabili ahal izango da. Asteko check-out

egiteko unean erabat hustuta egon behar du, finkatutako ordutegia zorrotz betez.

Liburutegia, ikasketa-gelak, egongela eta gimnasioa, igandeetan, check-in aurretik, eta ostiraletan, check-out ondoren, erabili ahal izango dira.

Logela hustu ondoren, txartela harreran entregatu behar da. Check-out ondoren gune komun horiek erabili nahi badira, gune komunetako txartela eskatu beharko da harreran.

AB moduluko igogailuen ondoan, sotoan, kontsigna bat dago. Bertan, armairu handi batzuk daude eraman nahi ez diren gauzak bertan uzteko.

Kontsigna horretan aipatutako modalitatea aukeratu duten egoiliarrak bakarrik sartu ahal izango dira.

Armairuek 1 €ko txanponekin funtzionatzen dute.

Olarain ez da armairuetatik kanpo geratzen diren objektuez arduratuko.

Armairuko giltza ez galtzeko, harrerako kutxatilatategian uztea gomendatzen da.

Olaraingo garbiketa-taldeak ostiraletan garbituko ditu logelak eta aldatuko ditu mairidireak eta toallak. Asteko gainerako egunetan egoiliarrak logela eta bainugela garbi eta ordenatuta eduki beharko

ditu, eta ohea egunero egin beharko du.

Norberaren arropa garbitzeko zerbitzua ez dago modalitate honetan sartuta.

Une jakinetan egonaldia asteburuan luzatzeko aukera dago. Kasu horretan, eskaera harrerari idatziz egin beharko litzaioke zazpi egun lehenago, gutxienez reservas@olarain.com

DATUAK BABESTEKO LEGEA

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz, Olarain Ikastetxe Nagusia SLK, IFZ B20581138 duenak (aurrerantzean, "OLARAIN"), datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik, honakoa jakinarazten dizu:

01. Helburuak. Tratamenduaren arduradunarekin duzun harremanean zehar ematen dituzun datu pertsonalak eta dokumentuak gure tratamendu-sistemetan sartuko ditugu Ikastetxe Nagusiaren administrazio eta antolaketa lanak kudeatzeko, gure zerbitzuak eta jarduerak sustatzeko eta hedatzeko, gure jarduerari dagozkion bidezko zereginak egiteko eta legezko eginbeharrak betetzeko, bai eta ikastetxearen Estatutuen eta Barne Araudiaren ondorio diren helburuak eta une bakoitzean indarrean dauden funtzionamendu ordutegiak eta irizpideak betetzeko ere.
02. OLARAINek bideozaintzako kamerak ditu instalatuta hainbat aretotan, bai eta eraikinen kanpoko aldean ere. Zure irudia, beraz, ikasleei, langileei eta hirugarrenei eta Ikastetxeko instalazioei eta jarduerari behar bezalako arreta eta segurtasuna ematea helburu duen "Bideozaintza" izeneko gure datu-tratamenduan sar dezakegu.
03. OLARAINek txartel elektronikoak erabiltzen ditu sarbideak kontrolatzeko. Zure txartel elektronikoaren erabilpena, beraz, Ikastetxe Nagusiko instalazioetarako sarbideak behar bezala kontrolatzea eta horren ondorio diren gorabeherak kudeatzea helburu duen "Aretoetako sarbideak" izeneko datu-tratamenduan sar dezakegu.
04. Sekretu-eginberrara. Datu pertsonalen tratamendua sekretu profesionala gordetzeko eginbeharrak babesten du eta behar bezalako konfidentziasunez egingo da, datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraituz.

05. Adostasuna. Sinatzaileak eta, hala badagokio, bere familiartekoeak edo arduradunek, baimen zehatza ematen diote tratamenduaren arduradunari bere datu pertsonalak bildu eta tratatzeko, osasunari buruzko datuak barne direla. Familiartekoen edo hirugarrenen datuak ematen badituzu, ziurtatzen duzu haien baimen zehatza duzula haien datuak OLARAINi emateko.

06. Modalitatea eta iraupena. Datu pertsonalen tratamendua paperean nahiz baliabide informatikoen bidez egin ahal izango da. OLARAINek denbora-mugarik gabe gorde ahal izango ditu datuak legez dagozkion betebeharrak edo interes zilegiak betetzeko, zuk aurkakoa eskatu ezean.

07. Datuak komunikatzea. Datu pertsonalak deskribatutako helburuetarako bakarrik tratatuko dira, eta ez dira erabiliko eta ez zaizkie hirugarrenei lagako beste helburu bakar baterako, zuk idatziz zehatz-mehatz eskatu ezean. Hala ere, OLARAINek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari, edo ikaslea Ikastetxe Nagusiko egoliar bere kontura duen enpresari edo erakundeari, komunikatu ahal izango dizkie portaerari,

gorabehereri, zigorrei, sarrera-irteereri eta jardueretan parte hartzeari buruzko datuak (irudi eta soinua barne direla), bai eta Ikastetxeko Estatutuetan, Barne Araudian eta ikasleari dagozkion funtzionamendu irizpide eta ordutegietan adierazitako helburuak behar bezala betetzeko behar diren gainerakoak ere, eta zehazki ikasleen gelen egoerari buruzkoak eta sarbide-kontrolakoak eta bideozaintzakoak. Era berean, OLARAINek datuak komunikatu ahal izango dizkie Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, kirol-federazioei eta Ikastetxearen aseguru-etxeari, bai eta aurreikusitako eta legez baimendutako edo derrigortutako gainerako kasuetan ere.

08. Harremana ikaslearekin. Sinatzaileak eta, hala badagokio, haren familiartekoeak edo arduradunek, baimen zehatza ematen diote tratamenduaren arduradunari eskaintzen dituen zerbitzuei eta jardueri buruzko informazioa eta agiriak baliabide elektronikoen bidez helaraz diezaizkien, posta elektronikoa, mezularitza elektronikoa eta kideko erremintak barne direla.

09. Honakoak dira Pribatutasun Politika honetan deskribatutako datu-tratamenduetarako oinarri juridikoak:

- a)** datuak tratatzeko zure adostasuna,
- b)** zuk eskatutako zerbitzuak emateko zure datuak tratatzeko premia,
- c)** tratamenduaren arduradunak legezko betebeharrak betetzea, eta/edo
- d)** tratamenduaren arduradunaren interes zilegia, esate baterako, gure zerbitzuak eta jarduerak sustatzeko eta hedatzeko.

10. Agiri hau OLARAINek bertako ikasleei dagokienez jarraituko duen Datuak Babesteko Politika da, eta ez du, beraz, horren berri eman beharrik izango ondorengo formularioetan edo ematen dituen zerbitzuetan, politika hori edo legeria aldatu ezean. Eskatutako datuak emateak, zuk gure zerbitzuak eskatzeak eta Politika hau onartzeak esan nahi dute baimen zehatza ematen diozula tratamenduaren arduradunari datuak biltzeko eta datuak deskribatu bezala tratatzeko, zure osasunari buruzko datuak barne direla, beharrezkoa denean. Zure datuak tratatzeko baimenik ematen

ez baduzu edo emandako baimena erretirutzen baduzu, OLARAINek ezingo ditu eskatutako zerbitzuak eman.

11. Eskubideak. Datu pertsonaletan sartzeko, datu pertsonalak zuzentzeko, datu pertsonalen tratamendua mugatzeko, datuak kentzeko, datuen tratamenduaren aurka agertzeko eta datuak transferitzeko eskubideak gauzatu ahal izateko, zure adostasuna kentzeko edo gaiari buruzko beste edozein eskaera egiteko idatziz jo beharko duzu OLARAIN Ikastetxe Nagusira, Ondarreta Pasealekua 24, 20018 Donostia-San Sebastian (Gipuzkoa) helbidean edo tutoria@olarain.com helbide elektronikoaren bidez, zure NANaren kopia edo kideko identifikazio-agiria eransita. Eskaerei emandako erantzunarekin ados ez bazaude edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, kontrol-agintaritzara jo dezakezu, kasu honetan Datuak Babesteko Agentziara: www.aepd.es

Olarain Ikastetxe Nagusia SLk, tratamenduaren arduradun gisa, zure adostasun zehatza eskatzen du datuen honako tratamenduetarako eta komunikazioetarako:

- a)** Izen-abizenak, irudi

pertsonala, gela-zenbakia, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, telefono-zenbakia, herria, ikasleak egiten dituen ikasketak edo jarduerak eta ikastetxean egiten dituen zereginak eta jarduerak ikasturtze bakoitzean, bai baliabide informatikoen bidez bai paperean, bai eta ikastetxeko iragarki-tauletan erakutsiz, gainerako ikasleei, erabiltzaileei, bisitariei eta ikastetxeko langileei komunikatu ahal izateko.

BAIMENA EMATEN DUT
EZ DUT BAIMENIK EMATEN

b) Izen-abizenak, irudi pertsonala, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, telefono-zenbakia, ikasleak egiten dituen jarduerak edo ikasketak eta ikastetxean egiten dituen zereginak eta jarduerak OLARAINen argitalpenetan agertu ahal izateko.

BAIMENA EMATEN DUT
EZ DUT BAIMENIK EMATEN

c) Izen-abizenak, irudia, ahotsa, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, telefono-zenbakia, ikasleak egiten dituen jarduerak edo ikasketak eta ikastetxean egiten dituen zereginak eta jarduerak OLARAINen webguneetan, blogetan, gizarte sareetan eta kanaletan eta Intranetan

erabiltzeko.

BAIMENA EMATEN DUT
EZ DUT BAIMENIK EMATEN

ARAU EKONOMIKO ADMINIS- TRATIBOAK

01. **Fidantza**

Ikasturtean Ikastetxe Nagusian aurre matrikula egiteko ezinbestekoa izango da fidantza jartzea. Fidantza horren zenbatekoa Ikastetxeko Zuzendaritzak zehaztuko du urtero.

Fidantza horren bitartez, aurre matrikularen eskaera finkatuko da, instalazioetan, materialean eta abar sor daitezkeen kalteak, banaka nahiz taldeka egindakoak eta erabilera normalari ez dagokionak, bermatu ahal izango dira eta egoilarraren zordun-saldoa, hileko ordainketan nola beste zerbitzu batzuetan, erantzungo da.

Behin ikasturtea haista ikasleak postuari uko egiten badio bere borondatez edo Zentrutik kanporatua izaten bada, Ikastetxeak ez du fidantzaren zenbatekoa itzuliko, erabaki horren eratorritako kalteen ordainetan.

Ez Ikastetxeko Zuzendaritzak, ezta zuzendariak ere, ez dute aurreko araua aldatzeko eskumenik.

Edozein hondaketaren konponketaren kostua edo erabilera okerragatik erabiltezin, gelditu diren elementuen aldaketaren kostua, jarritako fidantzatik kenduko da, bai edozein egoiliarri egotz datiezkkeenak eta modu berezien egoiliarraren logelan gertatutakoak, kantuan edo posterrak jartzea, altzariak lekuz mugitzea edo Zentruko elementuei ez dagozkien erabilera ematea.

Fidantza hau, egoiliarrak ikasturtea bukatzean Ikastetxe Nagusia utzi eta 60 egunerako itzuliko da, behin logelaren berrikusketa egin denean eta ondorengo behin betiko likidazioa egingean.

02. **Ordaintzeko modua**

Hileko ordainketak alde aurretik kargatuko dira. Egoiliarraren aitak, amak edo tutoreak adierazten duen banku-kontuan. Ordainketa hil bakoitzeko lehen egunean helbideratutako bankuko ordainagirien bitartez egingo da.

Irailetik maiatzera arteko (biak barne) hileko kuotak osorik ordainduko dira, iraileko zein egunetan sartu diren eta

maiatzako zein egunetan irten diren kontuan hartu gabe.

Ikasturtea irailaren 1a baino lehen hasi behar badute, abuztuko egonaldia hileko kuota baten zati proportzionalaren arabera kobratuko da. Gauza bera gertatuko da egonaldia ekainaren hasierara arte luzatu behar dutenean.

Olarain ordaindu ondoren eta, ekaineko errekupeazio-azterketen garaian ostatu hartu nahi bada, egun bakoitzeko hileko kuotaren % 5a ordainduko da.

Hileko kuota baten ordainketa atzeratzen bada, Ikastetxe Nagusian baja eman ahal izango zaio egoiliarrari.

Egoiliarren batek Zentrua utziko balu, edozein delarik ere horretarako arrazoia, kanporatzea barne, ez da inongo kantitaterik itzuliko, ez fidantza, 01. atalak dion bezala eta ezta baja ematen deneko hileko ordainketa ere.

Mota honetako erakundeetan –Ikastetxe Nagusietan eta Unibertsitate Egoitzetan– gertatu ohi den moduan, ez da errentaren zenbatekoan beherapenik egingo, ez egoiliarra Ikastetxeaz kanpo dagoen aldiagatik, ez Ikastetxean beranduago sartzeagatik.



Arau partiku larrak

 OLARAIN



ARAU OROKORRAK

Hainbat arauri arreta berezia eskainiko diegu. Horien artean gela bakoitzaren erabilera pertsonal eta besterenezinarekin lotzen diren arauak nabarmenduko dira, bai eta gela bakoitzean eta geletara sartzeko korridoreetan nagusi izan behar duen isiltasun, ikasketarako giro, garbitasun eta txukuntasunari dagozkionak ere.

Egoiliar batzuek, bestalde, beste hainbat alderdiri buruzko eskakizunak egiten dizkigute: norberaren garbitasuna –gorputz-usaina...– eta guztientzako eremuetan (kafetegiko egongelan, janlekuan, telebista-aretoetan, saunetan...) neurritz jokatzea –mahaia edo sofa gainean oinak ez jartzea...–.

Eraikinaren barruan eta aparkalekuan gurekin topo egiten duten pertsona guztiak agurtzea heziera oneko araua dela iruditzen zaigu.

Ikastetxean sartzeko muga-ordua 00:00 o da. Ordu horretatik aurrera nahitaezkoa izango da fitxatzea, sarrera-ordua erregistratuta gera dadin.

Harrera-lekuan dauden kutxatilik postontziak dira, eta bertan egoiliar bakoitzari zuzendutako oharra, gutunak eta abisua utziko dira. Kutxatila horien zenbakia bat dator gelaren zenbakiarekin.

Ikastetxeak ez du inolako erantzukizunik jasotako enkargu bat berandu ematen bada. Egoilarrari berari dagokio egunero bere kutxatila begiratzea eta bertan dagoena eskatzea.

Harrera lekuan instalatuta dauden eta gela zenbaki bera duten kutxatilik ikasle guztientzako oharra, gutunak eta jakinarazpenak uzteko ontziak dira.

Harrera-lekua ez da objektu pertsonalak (liburuak, motxilak eta abar) uzteko kontsigna.

Igandetik ostegunera sotoa itxita egongo da 00:00etatik aurrera, eta ostiral eta larunbatetan 1:00etatik aurrera; hortaz, ezin izango da bertan izan, ez eta bertan sartu, aipatutako ordutik 7:00etara bitartean.

Segurtasun arrazoiak direla eta, erdiko azoteara soilik joan daiteke; alboetakoetara, berriz, langile espezializatuak soilik joan daitezke, mantentze lanak egitera.

Ezin izango dira Ikastetxean sartu: batetik, bertan sartzeko plaza eskatu eta onartu ez diren pertsonak, eta, bestetik, Ikastetxetik behin betiko bota diren egoilarrak edo aldi baterako bota direnak, azken horiek kanporatze-eparearen barruan jakina.

Egoiliar batek Ikastetxeko zerbitzuetako guztietan eragina duten arauak betetzen ez baditu, zerbitzu horiek erabiltzeko debekua jar dakioko.

Adierazitako arau horiek hainbat egoiliarrek behin eta berriro betetzen ez badituzte, Ikastetxeko egoiliar guztientzat utz daiteke bertan behera zerbitzu hori.

Ikastetxeko egoiliar ez diren pertsonak ikastetxean, atariaz harantzago, sartu nahi badute, eskaera idatzia aurkeztu beharko dute zuzendaritzan. Horretarako, harrera-lekuan beren esku dagoen inprimakia bete beharko dute.

01. GIMNASIOA

Ordutegia:

07:00etatik 21:45era

Barruti honetan dauden makinak erabili nahi dituen pertsonak eskuoihala eraman beharko du.

Erabili ondoren, makinak guztiz lehortu beharko dira, eta aurkitu bezala utzi beharko dira.

Gimnasioko material mugikor guztia, eta bereziki pisuak, dagokion lekuan utzi beharko da txukun, eta ezin izango da inola ere gimnasiotik bertatik atera.

Doitasuneko neurgailuak dituzten aparatuak erabiltzean, arreta handia jartzea gomendatzen da.

Eraikin osoan nagusi izan behar duen isiltasun-giro orokorra ez kaltetzeko, gimnasioan musika entzun nahi bada entzungailuak erabili behar dira.

02. SAUNA

Ordutegia:

**10:00 etatik 12:00etara
eta 18:45etatik 21:45etara**

Gelako txartela saunaren kanpoaldean dagoen txarteldegian sartu behar da aktibatzeko.

Higiene-arrazoiak direla-eta, saunara nahitaez sartu beharko da oinutsik eta eskuoihal batekin. Eskuoihalaren laguntzaz, gorputzarekin zura zuzenean ukitzea saihestuko da, lurzoruaren kasuan izan ezik.

Ezin dira ordulariak, kateak, eskumuturrekoak edo bestelako janzkiak sartu.

Ikastetxe Nagusia ez da arau hau ez betetzeagatik sor daitezkeen galeren erantzule izango.

Ezin izango da bainu-jantzia jantzita eta eskuoihalarekin eskaileretan, igogailuetan edota sotoan ibili.

Gimnasia edo saunara sartu aurretik sotoan dauden aldagelak erabili ahal izango dira.

Ikastetxe osoan eskatzen den begiramenaz jantzita joan beharko da aldageletatik instalazio horietara.



03. ORDENAGAILU GUNEA

Ordenagailu guneak, ordenagailu kopuru mugatua du. Bertako ordenagailuen bidez, ordenagailu pertsonala ez izatearen behin- behineko egoerei irtenbidea emango zaie.

Ez da komeni disko gogorrean informazio pertsonala grabatzea. Izan ere, informazio hori egunero ezabatzen da eta ezin da berreskuratu.

04. LIBURUTEGIA “Toti Martínez de Lezea”

Liburutegian erabateko isiltasuna izan beharko da. Guztiek bete beharko dute liburutegiaren bi oinetan isiltasunaren araua, beharrezko ikasketa eta lanerako giroa mantentzearen.

Kontsultaren baten egin behar izanez gero, gelaz kanpo edo talde- lanerako ikasgeletakoren batean egin beharko da.

Liburutegian ez dago ez jaterik ez edaterik.

Lanerako lekua topatutako baldintza berberean utzi beharko da. Mahia garbia, eserlekua jasota eta banako argiak eta kolektiboak itzalita.

Salbuespen gisa- ikasle asko

bertaratu ez bada- , liburuak eta apunteak mahai gainean, behar bezain txukun, instalazioaren garbiketa erraztearren.

Aldizkariak liburutegian soilik irakurri ahal izango dira.

Egoiliar batek, lan bat egitekotan, aldizkariak liburutegiaz kanpo erabili behar baditu, Egoiliarren zuzendaritzan edo Tutoretzan eskatu beharko ditu.

Ikasturtea amaitutakoan, apunte, liburu eta objektu pertsonalak ikasgeletatik eraman beharko dira eta dagokien edukiontzietara bota.

05. IKASKETA GELAK

Ikasketa-gelak talde txikietan lan egiteko diseinatuta daude. Hori dela-eta, ikasgela horietan hitz egin ahal izango da, betiere hurbil dauden eraikineko beste egoitza batzuetan daudenei trabarik egin gabe.

Ikasgeletan ez dago jaterik, edaterik eta erretzerik.

Lanerako postuak topatu ziren baldintza berberetan utzi behar dira, mahai guztiak garbi –libururik eta apunterik gabe–, aulkiak jasota, arbela txukun eta argiak itzalita.

Garbiketa egiterakoan, Ikastetxeko langileek mahai

ganean edo geletako beste edozein lekutan egon behar ez zuten objektuak aurkitzen badituzte, zakarrontzira botako dituzte.

Ikasturtea amaitutakoan, apunte, liburu eta objektu pertsonalak ikasgeletatik eraman beharko dira eta dagokien edukiontzietara bota.

06. MUSIKA GELAK

Ordutegia:
07:00etatik 23:00etara

Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegian ikasten ari diren egoiliarrek dute musika-gelak erabiltzeko lehentasuna.

Musika ikasten duten egoiliarren kopurua erabilgarri dauden musika-gelen kopurua baino handiagoa bada, Zuzendaritzak musika-gelaren erabilera orekatsua izateko ordutegi egokia egingo du.

Aretoak erabilitakoan, garbi eta txukun utzi beharko dira.

07. TEKNOLOGIA GELA

Teknologia-gela esku-lanak egiteko diseinatu den espazioa da, hala nola maketak, txartelak, dekoratuak edo planoen

kalkoak egiteko.

Areto horretan hitz egin daiteke, baina ezin da jan, edan, erre edota entzungailurik gabe musika-aparaturik erabili.

Lanerako postuak topatu ziren baldintza berberetan utzi behar dira, mahai guztiak garbi –libururik, apunterik eta erabilitako material arrastorik gabe–, aulkiak jasota eta argiak itzalita.

Salbuespen gisa, amaitu gabeko lanak, horretarako instalatu diren apaletan utzi ahal izango dira. Hala eginez gero, ohar bat jarri beharko da agerian. Bertan, zaborretara ez botatzeko adieraziko da eta, gainera, egilearen izena, gelaren zenbakia eta lan horiek gela horretan zenbat denbora emango duten, gutxi gorabehera, jakinarazi beharko da.

Ikasturtea amaitu ondoren, egindako lanak, maketak, apunteak eta liburuak, hala nola objektu pertsonal guztiak, erretiratu egingo dira, dagozkien edukiontzietan gordetzeko.

08. “TXOKUS”

Ordutegia:
9:00tatik 23:00tara

“Txokus” soilik sukaldaritza ikasleentzako erabilpena

dauka. Gela hau saio teorikoetako ezagutza praktikan jartzeko erabiliko da bakarrrik eta ez ikasleen jan mantenua egiteko leku bezala.

“Txokus” –eko ateak beti itxita egon behar du. Bestalde, gehienez lau ikasle batera egon daitezke bertan.

Gela erabili ondoren, guztia behar bezala ordenatua eta garbituta geratu behar du, ikasleen egin beharra delarik sukaldeko tresneria, enzimera, eta makinaren garbiketeta.

Sukaldaritza ikasleen ardura da ke-erazgailua, hozkailua, labea, frijigailua, plantxa, indukzio plaka eta mikroondasaren garbitasuna.

“Txokus”-en lanean aritu den ikaslearen ardura da egindako zaborra kanpoko zabor kontainerretara ateratzea eta zabor boltsa garbiak jartzea zakarrontzietan.

Ezingo da “Txokus” utzi: labea, frijigailua, mikroondasa, ke-erazgailua edo indukzio plaka martxan baldin badago.

Bertako erabilera egokia bada Olarain Ikastetxe Nagusia arduratuko da beharrezko garbiketeta materiala edukitzeaz.

Olarain Ikastetxe Nagusia ez da arduratuko platerak prestatzeko lehengaiak eskuratzeaz eta

mantentzeaz.

“Txokus”-en guztiz galarazita dago egindako platerak zentruko zuzendaritzaren baimenik gabe ateratzea.

Arau hauek hausteagatik, arau-hauslea zerbitzu honetatik kanpo geldi daiteke.

09. FOTOKOPIAGAILUA ETA DOKUMENTU BIRRINGAILUA

Fotokopiagailua/ inprimagailua egoiliar guztien zerbitzura dago eta arreta handez erabili behar da.

Pribatutasuna bermatzeko eta Datuak Babesteko Legea betetzeko konpromisoarekin, Olarainek ikasle guztiei dokumentu-birringailua erabiltzeko aukera ematen die.

Birringailu hori fotokopiagailuaren/ inprimagailuaren ondoan dago.

10. SPATIUM

Sotoan dagoen Spatium Ikastetxeko egoilarren aisialdi eta denbora-pasarako leku komunak dira.

Barruti osoan, eta batez ere egongelan, gizalegez portatu behar da, eta erabilera komunekoa leku batek eskatzen duen heziera oneko arauak bete behar dira.

Guztien errespetua aintzat hartuta, bertan ezin da:

- Jan eta edan.
- Ozenki hitz egin.
- Oinutzik egotea eta behar bezala jantzita ez egotea.

Ondoko ordutegia dute:

Igandetik ostegunera

7:00 - 00:00

Ostiral eta larunbatetan

7:00 - 1:00

11. JANLEKUA

Janlekua azpikontrataturako enpresa batek kudeatzen duenez gero, zehatz-mehatz errespetatu beharko dira ezarrita duaden ordutegiak.

Ondoko ordutegiak izango dira:

	Lan egunetan	Larunbat eta jai egunetan
Gosaria	07:30 09:30	08:00 11:00
Bazkaria	13:30 15:30	13:30 15:00
Afaria	20:30 22:00	20:30 22:00

Egun berezietako ordutegi aldaketa —Aste Santuko oporretakoa— bere garaian iragarriko da.

Janlekuak self-service gisa funtzionatzen du eta otorduek ondoko osaera izango dute:

Gosariak

- Zukua edo fruta.
- Kafea, kafesnea, kakaoa, infusioa edo yogurra.
- Esnea.
- Zerealak edo muesli.
- Ogia edo ogi txigortua.
- Eztia, gurina, mamelada, kakaoa edo ogia tomatearekin.
- Hesteki zati bat.
- Bi kroissantak edo bi naplitana edo edo bi opil ontziratu edo tortita bat.
- Aukeratu hauetariko plantxa plater bat:
 - Arrautzopila.
 - Bi arrautz plantxan.
 - Arrautza plantxan eta bi hirugihar xerra.
 - Arrautza plantxan eta bi saltxitxa.
 - Hiru saltxitxa.
 - Hiru hirugihar xerra.

Bazkariak eta afariak

Menua, normalean, lehen platerako aukeretako batez, bigarren plateretako aukeretako batez eta postre batez osatuko da.

Salbuespen gisa entsalada, lehen platera eta postrea aukeratzea ere onartuko da.

Lehen platera:

Bi aukeretatik –entsalada eta bat– bat hautatu beharko da eta nahi adina errepikatu ahal izango da.

Bigarren platera:

Hiru aukeretatik –bat elaboratu eta bi plantxan eginak– bakarra har daiteke soilik eta ezin da errepikatu.

Bigarren plateraren garnizioa. Prestatutako garnizio edo entsaladako osagai bat.

Postrea: aukeran dauden postreetako bat soilik har daiteke.

Ogia eta ura: nahi adina.

Beste osagarri batzuk nahi badira, zuzenean kutxan ordainduko dira.

Arduraz eta elkartasunez jokatzea eta bakoitzak arrazoiz jango duen janari-kantitatea zerbitzatzea edo eskatzea espero da, ahalik eta janari gutxien alferrik gal ez dadin.

Janariak janlekuan jango dira. Higieneagatik ezin da esparru honetatik jakirik atera.

Pikniken bat behar ez gero bai gosarikoa, bai bazkarikoa edo afaltzekoa ere, idatziz egin behar da eskaria, Egoileen Zuzendarira/

Egoileen Tutoreari, 24 orduko lehentasunarekin.

12. EGONGELA

Ordutegia:

07.00 a 01:00

Egongela solasaldirako eta mahai-jokoetan aritzeko lekuak dira. Egoiliarrek Harrera-lekuan eskatu ahal izango dituzte mahai-jokoak.

13. MOTO ETA BIZIKLETETARAKO APARKALEKUA. SURF-OHOLAK GORDETZEA.

Ordutegia:

07:00etatik 23:00etara

Sotoan aparkatuta dauden moto eta bizikletek jabearen gela zenbakia eta ikasturtea biltzen dituen ikastetxeko bereizgarria eranskailua eduki behar dute.

Motoak eta bizikletak sotoan aparkatzean, Ikastetxera sartzeko bidetik hurbilen dagoen jaisteko arrapala erabili beharko da beti.

Sotoan, bizikletak kakoetan ondo ordenatuta jarri behar dira eta horretarako prestatuta dauden aparatuetan, eta kanpoan, bizikleten aparkalekuan giltzarrapoz lotuta utzi behar dira.

Ikastetxeak ez du erantzukizunik izango

sotoaren barruan dagoen edozein ibilgailutan kalteak edo lapurretak gertatzen dira, nahiz eta ibilgailua behar bezala aparkatuta dagoen.

Surf oholak sotoan gorde behar dira, hartarako dagoen euskarrian. Era berean, eskuoihala eta ikastetxera sartzeko txartel pertsonala gordetzeko kutxatila daude.

14. PADELA

Padeleko kirol instalazioa Olaran Ikastetxe Nagusiko ikasle eta langileentzat da, baita Ekintza Ikastolako langile eta ikasleentzat ere.

Padela denontzako zerbitzu bat da eta erabiltzaile guztien partetik jarraian aipatuko diren arauak zorrotz betetzea eskatzen du.

Pistara kirol oinetakoekin sar daiteke bakarrik. Erabat debekatua dago oinetako zapalekin sartzea eta are gutxiago takoidun oinetakoekin.

Pertsona talde batek instalazioa erabili nahi duenean, Olaraingo barne komunikazio bidez jakinaraziko den ordu osoetan eta 22:00 orduak arte dagoelarik muga, taldeko arduradunak Herreralekura joan behar du erreserba egiteko.

Erreserbak eskaeraren arabera egingo dira, eta aldi bakoitzean gehinez pistaren 5 alokairu egin litezke egun desberdinetan. Erreserba egiten den egunetik azken erreserba arte gehinezko epea astebetekoa izango da. Hau da, erreserba bakoitzean instalazioa 5 orduz alokatu daiteke gehienez, ordubete egunean eta 7 egunez jarraian.

Pista ordubetez erabili ahal izateko hasieran jarritako prezioa 4 eurotakoa da, edozein delarik ere pista erabiliko duten jokalarien kopurua, gehinez 4 pertsona. Kopuru honen ordainketa erreserba egiterako momentuan egingo da.

Jokatzeko erreserba egunean, taldeko arduraduna Herreralekura joango da erabiltzaile txartelaren bila. Txartel honek eskatutako orduan bakarrik balio du pistara sartzeko.

15 € ko fidantza ordainduta, harrera lekuan kirol materiala eskuragarri dute erabiltzaileek. Fidantza hori itzuli egingo da padel pistara sartzeko txartela eta kirol materiala, egoera egokian, entregatutakoan.

Arduradun hau:

a) Derrigorrez intalazioaren erabiltzailea izango da hitzartutako orduan.

b) Ezin izango dio beste inori utzi ez erreserba ezta pistara sartu ahal izateko txartela.

d) Jardueraren hasieran, txartela padel pistara sartzeko dagoen atearen zerrailan sartu behar du, baita atea irekita balego ere.

e) Pistaren erabilera bukatzean, eremua eta ingurua txukun uztearen erantzule da, batez ere janari eta edari ondakinik gabe uztearena. Zakarrontzian utzi beharko da.

f) Pista uzterakoan, ateak itxi behar ditu, nahiz eta beste jokalaria batzuk zai egon.

g) Olarainen terrazatik ateratzean eraikuntzaren barnekaldera sartzeko, atea hermetikoki itxita utzi behar du Harreralekuarekin interfonoz konfirmatuz.

h) Txartela Harreralekuan utziko du.

Erabilera normalari ez dagokion instalazioko edozein hondaketa alokairua hartu duen taldeko arduradunari egotziko zaio.

Eremuan telebista kamarak jarri dira edozein gorabeheraren aurrean pertsona ororen sagurtasuna bermatzeko: istripuak, zauriak, debekatutako sarrerak, ekintza ezegokiak,...

Padel pista irakaskuntza

zentru batean dagoenez kokatua, erabat debekatua dago eremu guztian erretzea, baita estali gabeko zonatan ere.

15. IKASTURTE AKADEMIKOAN KONTSIGNA

Egoilarrek nahitaez utzi beharko dituzte bertan beren gelako armairuan sartzen ez diren maletak edo tamaina handiko bestelako tresnak.

Leku komun horretan gorde behar diren elementu guztiak agerian eduki beharko dute, bistan eta erraz irakurtzeko moduan, jabearen izena, gelaren zenbakia eta kurtsoa.

Mantentze-lanetako burua arduratuko da zerbitzu hau kontrolatzeaz. Arduradun horrek bertan gauzak gordetzeko ordutegia finkatuko du –lehen hiru hilabetearen lehen 15 egunetan–. Ordutegia behar bezala jakinaraziko da.

Era berean, gauza horiek bertatik ateratzeko egunak eta ordutegiak ere behar bezala jakinaraziko dira. Gauzak egoiliarrek berak atera beharko ditu bertatik.

16. ARROPA PERTSONALA GARBITU ETA LISATZEKO ARAUAK ASTE OSOKO EGONALDIETARAKO

Egoiliar bakoitzak astean gehienez 18 (zazpi galtzerdi pare bat izango balitz bezela kontatuko da eta 7 aldagarri, arropa bat izango balitz bezela kontatuko da baita), guztiz baztertuta daude berokiak, bai edota arropa finak izateagatik edo bereziak izateagatik tratamendu berezia behar duten arropak ere.

Arropa lisatzeko gelan arropa entregatzeko ordu-muga egoiliar bakoitzari arropa garbitzeko dagokion egutegian finkatutako egunaren goizeko 10:00ak dira edo bezpera.

Olarainek bi poltsa ematen ditu nork bere arropak antolatzeko:

Urdina: *Koloreko arroparako.*

Artile kolorekoa: *Arropa zurirako.*

Ezin dugu bermatu behar bezala garbitzea arropa finak edota tenperaturari edo lehortzeari dagokionez muga jakin batzuk dituzten arropak -zetazko arropak edo ehun bereziko arropak, esate baterako-. Horrenbestez, mota horretako arropak zerbitzu honetan ez sartzea gomendatzen dugu, lkastetxe Nagusiak ez baititu kalteak bere baitan hartzen.

Oso garrantzitsua!
Norberaren arroparen batek

tindua galtzen duen susmoa izanez gero, bereiztea komeni da. Tindua galtzen duen egiaztatzea oso erraza da, nahikoa da lehenago eskuz garbitzea.

Zerbitzu hau behar bezala kontrolatzeko, egoiliar bakoitzak inprimaki bat entregatu beharko du bere arroparekin batera. Inprimaki horretan bere gelaren zenbakia, garbitzeko emandako arropen zerrenda eta zein egunetan eman diren aditzera eman beharko du.

Dokumentu horren zutabe bakoitza aste bati dagokio. Hortaz, lau alditan, jarraian erabiltzeko diseinatu da.

Garbitutako arropa jasotzean edozein anomalia antzematen bada, lehenbailehen Tutorearekin edo Egoeileen Zuzendariarekin harremanetan jarri.

Eskatzen ez den arropa hilabetez gordeko da. Hilabetezko gehienezko epea amaitutakoan, Zuzendaritzak egoki jotzen duen Gobernu Kanpoko Erakunde bateri emango dio arropa.

Egoiliarren batek arau hauek ez baditu betetzen, arropa garbitu eta lisatzeko zerbitzuaz aldi baterako edo behin betiko baliatzeko debekua jar dakioke.

Basque Culinary Centre-ko ikasleen kasuan, laneko

uniformearen asteko garbiketa sartuta dago.

17. ARROPA ETA LOGELAK GARBITZEKO EGUNAK ASTE OSOKO EGONALDIETARAKO

	1. Oina	2. Oina	3. Oina	4. Oina
Logelak garbitzea	Astelehena eta Osteguna	Asteartea eta Ostirala	Astelehena eta Osteguna	Asteartea eta Ostirala
Olarain: maindire eta eskuohial garbiak logelan jasoko ditu*	Astelehena	Asteartea	Osteguna	Ostirala
Egoiliarrek: arropa pertsonala lisaketa gelan utzi	Astelehena	Asteartea	Osteguna	Ostirala
Olarain: arropa pertsonal garbia eta lisatua logelan utzi	Osteguna	Osteguna	Asteartea	Asteartea

* Egoiliarrek logela bazterrean utzi beharko ditu maindire azpikoa, estalkia eta buruko-zorroa, eskuohial zikinekin batera.

Egoiliar bakoitzakastean behin adatu beharko du oheko arropa.

Ikastetxe Nagusiaren jabetzako elementuren bat falta dela edo erabilerara okerragatik matxuratzen dela antzematen bada, ondoko zenbatekoak ordaindu beharko dira:

- *Toalla de lavabo*: **11,00 €**
- *Konketako eskuoihala*: **11,00 €**
- *Dutxako eskuoihala*: **22,25 €**
- *Bainugelako alfombra*: **11,00 €**
- *Maindirea*: **11,00 €**
- *Burukoaren azala*: **11,00 €**
- *Burukoa*: **20,00 €**
- *Edredoiaren azala*: **39,00 €**
- *Edredoa*: **55,50 €**
- *Koltxoiaren azala*: **33,50 €**
- *Koltxoa*: **115,00 €**

18. HAINBAT

Ezin izango da barruko telefono-deirik egin 00:00etatik 07:00etara.

Ondokoren bat galtzen bada edo itzultzen ez bada, ondoko zenbatekoak ordaindu beharko dira:

- * Txip-txartela: **12,00€**
- * Arropa poltsak edo saretak: **15,00 €**

Ikastetxearen edozein elementu oker erabiltzeagatik kalteak sortzen badira, elementu hori konpontzearen kostuaren arabera ordainduko dira kalteak.

19. OPORRAK ETA IKASTURTE-AMAIERA

Lehen eta bigarren hiruhilekoa.

1. eta 2. hiruhilekoa amaitu baino hamabost egun lehenago, ikasle bakoitzak, Gabonetako eta Aste Santuko oporrez gozatzeko, Ikastetxea gutxi gorabehera zein egunetan utziki duen jakinaraziko dio Zuzendaritzari.

Irteteko aurreikusitako egunaren 12:00ak baino lehen bere gela guttiz jasota eta txukun utzi beharko du, hiruhileko garbiketa osoa eta zehatza egin ahal izatearren.

Ikasturte amaiera

Ikasturtea amaitu baino hilabete lehenago egoiliar bakoitzak ikastetxea gutxi gorabehera zein egunetan utziko duen jakinaraziko dio Zuzendaritzari.

Irtengo diren eguna behar den epe horretan jakinarazten ez duten ikasleei ez zaie bermatuko egiten duten azken azterketatik aurrera ikastetxean jarraitu ahal izatea. Dena den, ezin izango dute inola ere bertan jarraitu maiatzaren 31tik aurrera.

20. ARAUDI HONEN ALDAKETA

Araudi honetan aintzat hartu ez den edozein ezohiko kasutan ezinbestekoa izango da Ikastetxearen Zuzendaritzaren baimen zehatza.

Ikastetxe Nagusiak, bidezko irizten badio, Arau hauek aldatzeko eskubidea du, hala egoiliarrei, beren senitartekoei eta, orokorrean, gizarteari eskaintzen dien zerbitzua hobetuko bada.

Pertsona interesatuek ikastutearen barruan gerta daitekeen Arauen aldaketan berri jasoko dute. Jakinarazpen hori egokien hartzen den bitartekoaz egingo da.

